

guruan krisian sartzen direnak. Herrigintza eta hezketa osoa ere bai. Eta honek urduri eta larritzen gaitu. ■ *Antonio Iraola.*

Alkoholismoa, gizarte arazoa

Alkoholismoaren arazoa benetan larria da gure gizartean. Are larriagoa Euskal Herrian. Estatu mailan populazio alkoholikoa %2tik %3rako da. Bizkaian, gehiago, %5ekoa. Are gehiago Barakaldon: %8koa. Ikaragarria da.

Datu hauk Fernando Marquinez bilbotar mediku psikiatra batek eginikako estudio berri batetik jaso ditut. Bistan da datu hauen aurreko lehen konklusioa: arazo honi lehenbailehen draga jarri behar zaio. Baina nola? Ez, noski, alkohola igotzearekin eta telebistan propaganda debekatzearekin bakarrik. Gizarte moldaketa berri bat eskatzen da, ohitura berri batzuk, inguru desberdina. Marquinez-ek aipatzen duen puntutxo bat azpimarratu nahi nuke nik hemen:

«Si una persona no tiene dónde esparcirse, si no dispone de actividades deportivas, culturales o recreativas que le satisfagan. Si en vez de encontrar zonas verdes, cada dos pasos ve una taberna... El medio, la situación es propensa a que ese individuo entre en los bares y se habitúe al vino y al alcohol...».

Taberna gutiago eta kultur etxe gehiago, esaten zuen besteak. ■ *Unai Nabea.*

Nikaragua eta beste...

Aspaldian ezaguna zaigu Nikaraguako herriaren samina Somozaren hatzapar otsotietatik libratu nahian. Nobela dramatiko bat irakurri edo jarraitu ohi dugun bezala, azkenerako ohitu egin gara hango berrien entzutera eta irakurtzera. Egunkarietan agertu den zenbait gertakizun, agintea eskuetan dutenen jolas entretenigarri bezala eman zaigu. Batzuen humilapena besteen asegarri eta pozkarri gertatzen da. Gutxi batzuk nahi duten guztia egiten bait dute lege eta giza eskubide guztien gaindi. Ezin daiteke uler, bestela, kaleetan zauriturik daudenak gasolinaz igurtzi eta guardia nazionalak erretzea; edo atxilotuei egiten zaizkien torturak, besoak moztuaz edo eztarrian ebaki bat eginaz, mihina handik atera korbata baten antzera eta zintzilik utzi sadismo guztiaz. «Homo homini lupus» esan zuenak asmatu zuen; eta agian, hau esan zenean baino egia handiagoa dateke gaur. Gaizto izateko gaitasuna norainokoa dugun pentsatzea zaila egiten zaigu.